


MEMORIA 2025



AURKIBIDEA

I. EHUko Berdintasunerako Zuzendaritza	1
Berdintasunerako Zuzendaritzaren osaera	2
Berdintasun Batzordea	2
II. Jardun lerroak	3
1. Prestakuntzako emaitzak.....	3
1.1. Ikasleentzako prestakuntza.....	3
1.2. Lemari, TEKAZELeke emakumeentzako programa.....	7
1.3. UIPRE prestakuntza	7
1.4. Onlineko prestakuntza	7
2. Ikerketaren arloko emaitzak.....	10
2.1. AKADEME, EHUko emakume akademikoen lidergoa bultzatzeko programa	10
2.2. Micaela Portilla saria EHUko tesi onenari, ikasketa feministei edo generokoei buruzkoari.....	10
3. Unibertsitate bizitza.....	12
3.1. Genero indarkerien aurkako UPV/EHUren protokoloa.....	12
3.2. Protokoloa, pertsona transek eta ez-bitarrek UPV/EHU izena aldatzekoa.....	13
3.3. IngeniatuZ campusa.....	14
4. Unibertsitate hedakuntza	15
4.1. Lana, familia eta bizitza pertsonala kontziliatzeko UPV/EHUko gida.....	15
4.2. Berdintasunari lotutako EHUren irudi soziala	15
4.3. EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzaren presentzia komunikabideetan	17
4.4. EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzaren presentzia beste unibertsitate edo erakunde batzuetako ekitaldietan eta jardueretan.....	18
4.5. EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzaren presentzia komunikabideetan	19

I. EHUko Berdintasunerako Zuzendaritza

EHUk, unibertsitate publikoa den aldetik, konpromiso irmoa du bere komunitatea osatzen duten pertsona guztien, emakumeen zein gizonen, berdintasunarekin. Hala, Estatutuetako 5.2 artikulua dio *EHUk, unibertsitate plurala eta feminista den aldetik, unibertsitateko kideak diren emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatzeaz gain, behar diren neurriak hartuko dituela edozein diskriminazio edo jazarpen prebenitzeko edo ezabatzeke, honako arrazoi hauek eragindakoa direnean: jaiotza, jatorri etnikoa, sexua, sexu orientazioa eta identitate sexuala, generoa eta genero adierazpena, erlijioa, sinesmena edo iritzia, hizkuntza, adina, desgaitasuna edo hezkuntza premia espezifikoak, nazionalitatea, gaixotasuna, egoera sozioekonomikoa, kideatasun politiko eta sindikala, itxura edo beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal edo sozial.*

Horren harira, 2006an EHUko Berdintasunerako Zuzendaritza eta Berdintasunerako zuzendari kargua sortu ziren (2006/06/15eko Gobernu Kontseilua), 4/2007 Lege Organikoak unibertsitateetan berdintasun unitateak abian jartzea bultzatu baino urtebete lehenago. 2007an, EHUko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko lehen diagnostikoa egin zuen.

Orduz geroztik, lan handia egin da berdintasunaren arloan, eta horren adierazgarri dira Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana (2024-2028) eta **Genero indarkerien aurkako EHUren Protokoloa**, 2018an onartua. 2023an urrats bat gehiago eman zen ildo horretan, eta **Genero Berdintasunaren Diagnostikoa** egin eta argitaratu zen, unibertsitateko aditu talde baten laguntzarekin.

2024ko uztailean, diagnostikoaren emaitzak kontuan hartuta eta hilabeteen joanean egindako negoziazio prozesu baten ondoren, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana onartu zen. Plan horrek aurrekoen filosofiarekin jarraitzen du, hau da, Euskal Unibertsitate Publikoa erreferente gisa kokatu nahi du gure lurraldean genero berdintasunaren eta aniztasunaren arloko ikerketan, transferentzian, prestakuntzan eta kontzientziazio sozialean.

Berdintasunerako Zuzendaritzaren osaera

Zuzendaria: Margaret Louise Bullen	maggie.bullen@ehu.eus	946018509 688673833
Teknikaria: Enara Agirre Arrizabalaga	enara.agirre@ehu.eus	946018039
Teknikaria: Iván García Martínez	ivan.garcia@ehu.eus	946018071
Administrari orokorra: Xabier Alvarez Loyarte	xabier.alvarezl@ehu.eus	943018062

Berdintasun Batzordea

Maite Muñoz Garcia de Iturrospe	Arteko eta Giza Zientzietako irakasle-ikertzailea
Borja Calvo Molinos	Arkitektura eta Ingeniaritzako irakasle-ikertzailea
Ana Isabel Puente Martínez	Zientzietako irakasle-ikertzailea
David Pastor Andres	Gizarte eta Lege Zientzietako irakasle-ikertzailea
Naiara Agirregoitia Marcos	Osasun Zientzietako irakasle-ikertzailea
Deñe Larrabeiti Mendikute	TERAZELEko langilea
Julen Zabala Alonso	TERAZELEko langilea

Era berean, EHUko ikastegi bakoitzak bere Berdintasun Batzordea du.

II. Jardun lerroak

1. Prestakuntzako emaitzak

EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzaren helburuen artean dago genero ikuspegia eta ikuspegi feminista irakaskuntzaren arloan barnera daitezen sustatzea.

1.1.- Ikasleentzako prestakuntza

Berdintasunerako Zuzendaritzak genero ikuspegia bultzatu nahi du ikasleek aurkeztutako gradu (GRAL) eta master (MAL) amaierako lanetan. Horren harira, 2025ean, aurreko urteetan bezala, sari hauek eman zaizkie EHUko ikasleei, gradu eta master amaierako lanetan genero ikuspegia txertatzeagatik:

- **Francisca de Aculodi saria, gradu amaierako lanetan genero ikuspegia txertatzeari buruzkoa**

EHUko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planaren (2024-2028) 1. ardatzeko 2.1 jardun lerroan aurreikusitakoa betetze aldera (*Genero ikuspegia duten Gradu Amaierako Lanen, Master Amaierako Lanen eta Doktorego Tesien aitortpena finkatzea, Francisca de Aculodi, María Goyri eta Micaela Portilla sarien bidez*), EHUk Francisca de Aculodi sariaren XII. edizioaren deialdia egin du gradu amaierako lanetan genero ikuspegia txertatzea saritzeko, ikasleek ezaugarri horrekin egindako lanik onenak aitortzeko, ezagutarazteko eta saritzeko xedearekin.

M8ko ekitaldi instituzionalean (2025eko martxoaren 10ean izan zen), Francisca de Aculodi sariaren XI. edizioko sariak banatu ziren (2024an defendatutako GRALak), guztira 39 GRAL aurkeztu ziren. 2025eko udazkenean, aldiz, Sariaren XII. edizioko lanak aurkeztu ziren, 30 guztira, eta 2026an erabakiko da horien inguruan. Aurkeztutako GRALen banaketa:

AURKEZTUTAKO GRADU AMAIERAKO LANAK		
	XI. EDIZIOA	XII. EDIZIOA
Gizarte eta Lege Zientziak	21	18
Arteak eta Giza Zientziak	8	7
Osasun Zientziak	7	4
Ingeniaritza eta Arkitektura	2	0
Zientziak	1	0
GUZTIRA	39	30

Azken edizio honetan hautagaitza ugari jaso dira berriro. Hala ere, azken edizioetako bilakaeraren analisiak erakusten duenez, zaila da hainbat jakintza eremutan presentzia

mantentzea, hala nola Ingeniaritzan, Arkitekturan eta/edo Zientzietan.

Hurrengo taulan Francisca de Aculodi sariaren XI. edizioan saritutako lanak jasotzen dira:

FRANCISCA DE ACULODI SARIAREN XI. EDIZIOAN SARITUTAKO LANAK			
Gizarte eta Lege Zientziak	Euskara	<i>Parte hartzearen eta indarkeriaren bidegurutzean: argi-itzalak Mendebaldeko Saharako emakumeen kontakizunetan</i>	Ane Lapitz Kaltzada
	Accesita	<i>Amatasun historiak: eromenaren estigma eta gizarte langintzaren erantzuna</i>	Laura Cantero Alcázar
	Accesita	<i>Euskal Herriko lehen greba feminista orokorra Gasteizko emakume militanteen ikuspegitik</i>	Amalur Pascual Miñambres
	Gaztelania	<i>Las mujeres en el sector artístico, creativo y cultural: precariedad y desigualdad laboral</i>	Natalia Navas Gil
Artea eta Giza Zientziak	Euskara	<i>AEBko hirugarren munduko feminismitik Gloria Anzalduren mestiza berrira hurbilpena</i>	Maider Lumbreras Otamendi
	Gaztelania	<i>Tras las huellas de la desigualdad de género: dieta, trabajo y movilidad en el Calcolítico de la península ibérica</i>	Claudia Yurena Larrad
Osasun Zientziak	Euskara	<i>Disfuntzio sexuala eta Dispareuniaren deskribapena Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko ikasleetan</i>	Izaro Erzilla Etxegibel
	Gaztelania edo beste hizkuntza bat	<i>Feelings of Guilt and Identification of Sexual Violence against Women: Myths, Feminist identity and Degree of Familiarity</i>	Arima Ezquerro Hassenpflug
Zientziak	Euskara	<i>Minbizi ginekologikoen markatzaile molekularren bila ausazkotze mendeldar analisi bat</i>	Olaia Farto Juaristi
Ingeniaritza eta Arkitektura	Euskara	<i>Emakumeentzako tutoretzapeko zentroa Berangon</i>	Ihartze Diaz Cueli

	Gaztelania	<i>Análisis de la base de datos Fox Insight y de su viabilidad para el estudio de factores diferenciadores según sexo en la enfermedad de Parkinson</i>	Maitane Gómez González
--	-------------------	---	---------------------------

- **María Goyri saria, master amaierako lanetan genero ikuspegia txertatzeari buruzkoa**

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planaren (2024-2028) lan ildoei jarraituz, EHUK master amaierako lanetan genero ikuspegia txertatzea saritzeko Maria Goyri sariaren XIII. ediziorako deialdia egin zuen, bertako ikasleek egindako ezaugarri horietako lan onenak baloratu, ezagutarazi eta saritzeko.

AURKEZTUTAKO MASTER AMAIERAKO LANAK		
	Guztira	Jakintza arloaren arabera
XIII. edizioa (2023/2024)	12	7 Gizarte eta Lege Zientziak 2 Osasun Zientziak 3 Arteak eta Giza Zientziak
XIV. edizioa (2024/2025)	7	4 Gizarte eta Lege Zientziak 2 Osasun Zientziak 1 Arteak eta Giza Zientziak

Hurrengo taulak M8ko ekitaldi instituzionalean (martxoaren 10ean) saritutako lanak jasotzen ditu:

MARÍA GOYRI SARIAREN XIII. EDIZIOAN SARITUTAKO LANA	
<i>Emakumeek jasan dituzten sumisio kimiko bidezko sexu-eraketen ikerketa: egungo gabeziak, erronkak eta zenbait proposamen</i>	Natalia Irati Gamba García
Accesita	
<i>Otras historias de María Blanchard: acercamiento feminista a la crítica de arte y discursos expositivos</i>	Ana María García Ramírez
Accesita	
<i>Utopia eraikiz: Hego Euskal Herriko praxi ekofeministara hurbilpen bat</i>	Esther Eizaguirre Pecharroman

Maria Goyri saria dagoeneko finkatuta dago EHUn, baina argi dago zaila dela alor ez tradizionaletatik lanak jasotzea. Edizioaren batean jaso diren arren, ez zaio eskaera horien presentziari eusten. Hori dela eta, etorkizunari begira garrantzitsua da arlo horietan berdintasun batzordeekin koordinatuta lan egitea.

- **Empar Pineda saria, gradu amaierako eta master amaierako lanetan LGTBIQ+ ikuspegia txertatzeari buruzkoa**

EHUko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planeko (2024-2028) IV. ardatzak —Pertsonak— 2.5 jardun lerroan aurreikusitako helbururantz aurrera egiteko ahaleaginean: **"LGTBIQ+ tematikako GRAL, MAL eta doktorego tesi onenei emandako Empar Pineda sariak eta UniDibertsitatea film laburren Lehiaketako sariak sendotzea, EHUK genero edo sexu orientazio aniztasuna errespetatzen duela aldarrikatzeko eta zabaltzeko modu gisa"**. Helburu hori betetzeko, EHUK Empar Pineda sariak antolatzen ditu, eta 2025ean sari horren V. edizioako sariak banatu dira eta VI. edizioa antolatu da. Sari horren helburua da LGTBIQ+ ikuspegia txertatzen duten lanei balioa ematea eta unibertsitatean ere aniztasuna aldarrikatzea.

AURKEZTUTAKO LANAK	
	Guztira
IV. edizioa (2022-2023)	9
V. edizioa (2023/2024)	11
VI. edizioa (2024/2025)	7

Aurreko edizioetan GRAL edo MAL lanak baino ezin ziren aurkeztu, baina Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planaren barruan doktorego tesiak ere aurkez daitezke. Empar Pineda sariak unibertsitatean errotuta dauden arren, eta GRAL eta MAL lanetan LGTBIQ+ ikuspegiari identitate propioa eman ahal izan zaion arren, azken edizio honetara aurkeztutako lanen kopuruak behera egin du aurreko edizioekin alderatuta.

EMPAR PINEDA SARIAREN V. EDIZIOAN SARITUAK		
Euskara	<i>Feminitatearen berreraikuntza eta modulazioa: mairika identitateetara hurbiltzeko bi gorputz-ibilbide</i>	Markel Laskurain Arrese-igor
Gaztelania	<i>Relaciones romántico-afectivas y violencias lgtbiq+fóbicas en jóvenes del País Vasco</i>	Jon Ander Careaga Maerovich

1.2.- Lemari, TEKAZELeko emakumeentzako programa:

EHUko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planeko V. ardatzak — Gobernantza eta baliabideak— 1.4 jardun lerroan jasotzen duen bezala: ***"Emakume akademikoen eta TEKAZEL emakumeen (Akademe eta A-Leader/Lemari) ahalduntzea eta lidergoa lortzen lagunduko duten prestakuntza programak sendotzea"***.

Lemari programa EHUko TEKAZEL emakumeentzako sortu zen, Akademe programaren ereduari jarraikiz, eta 2025ean 11 emakumek egin zuten Bizkaiko Campusean, zehazki Leioan, eta 7k Donostian.

Aurreko dinamizatzailerak, Maru Sarasolak, erretiroa hartu ondoren, Izaskun Merodiok eta Maider Gorostidik hartu zuten programaren lekukoa. Biak ala biak Maruk berak gomendatu zituen, eta aldaketa behar bezala egin da.

1.3.- UIPRE prestakuntza:

Aurreko urteetan hasitako ildoari jarraituz, 2025ean bi ikastaro eskaini ziren EHUko irakasle-ikertzaileentzat UIPREren esparruan. Alde batetik, STEAM metodologiaren ikastaroa eskaini zen berriro, aurreko edizioan izan zuen harrera ona ikusita. Bestetik, hizkuntzaren inklusioa hobetzeko asmoz, prestakuntza espezifiko eskatu zitzaizen Berdintasunerako Zuzendaritzak Hizkuntza inklusiboari buruzko online ikastaroan lankide dituen hainbat irakasleri.

Egiaztatu da UIPREren bidez HELAZekin batera egiten diren genero ikuspegiko prestakuntzek aukera interesgarria eta beharrezkoa eskaintzen dietela EHUko IRlei. Horregatik, prestakuntza espezifikorako bide hori mantendu eta indartu egin nahi da.

1.4.- Online prestakuntza

2025ean, aurreko urteetan bezala, online prestakuntzen eskaintzari eutsi zaio, udazkeneko online ikastaroen eskaintzarekin.

EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzaren prestakuntza eskaintza horrek aurreko urteetako ibilbideari jarraitzen dio, eta harrera ona du unibertsitateko kideen artean, batez ere ikasleen artean. Arrakasta duen arren, gizonen parte hartze txikia agerikoa da, kasu gehienetan % 20tik beherakoa. Une honetan, gizonen parte hartzea areagotzea da EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzaren erronka garrantzitsuenetako bat.

Prestakuntza eskaintzari dagokionez, azken edizioetako ikastaro berak eskaintzen dira, batzuk EHUkoak dira eta beste batzuk Emakunderekin lankidetzan egiten dira:

EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzak eskainitako ikastaroak:

- Hizkuntza inklusiboa
- Hezkidetzaren alde busti!
- Sexu-dibertsitatea
- Haurren kontrako sexu abusua

Emakunderekin lankidetzan:

- Emakumeen eta gizonen berdintasuna

- Maskulinitateak. Gizonak eta berdintasuna: erronkak eta erresistentziak
- Emakumeen aurkako indarkeria

Online ikastaroen azken edizio honetan nabarmentzekoa izan da IRlen eta TEKAZELen parte hartzea, aurreko edizioetan baino ehuneko handiagoa izan baitute. IRlen kasuan, gorakada horren arrazoietakoa bat izan daiteke ikastaroei buruzko informazioa zabaltzeko bidea aldatu izana, kanalak dibertsifikatuz eta haien irismena handituz. TEKAZELen kasuan, berdintasunari buruzko prestakuntza lekualdatze lehiaketetan baloratu beharreko merezimendu gisa sartu izana aldaketa esanguratsua izan da.

Online ikastaroen XIII. edizioa, 2025-2026 ikasturtea, edizio bakarra

ONLINE IKASTAROA	IRAUPENA	ESKAINITAKO PLAZAK	IZEN EMATEAK				ONARTUAK				AKREDITATUAK			
			E	G	EB	GUZTIRA	E	G	EB	GUZTIRA	E	G	EB	GUZTIRA
Emakumeen eta gizonen berdintasuna	25 ordu	200	127	35	1	163	115	32	1	148	64	27	1	92
Hizkuntza inklusiboa	25 ordu	200	114	39	3	156	114	39	3	156	52	24	2	78
Maskulinitateak	25 ordu	200	70	38	0	108	70	38	0	108	43	24	0	67
Sexu-dibertsitatea	30 ordu	200	149	34	5	188	143	33	5	181	106	19	4	129
Hezkidetzaren alde busti!	75 ordu	100	88	15	5	108	83	15	5	103	36	6	3	45
Haurren kontrako sexu abusua	35 ordu	200	189	27	3	219	174	23	3	200	118	16	3	137
Emakumeen aurkako indarkeria	25 ordu	200	106	11	1	128	89	10	1	100	66	7	1	74
GUZTIRA		1.300	843	199	19	1.061	788	190	18	996	485	123	14	622
			% 79,45	% 18,75	% 1,80		% 79,11	% 19,07	% 1,82		% 77,97	% 19,78	% 2,22	

2. Ikerketaren arloko emaitzak

EHU dagoeneko IV. Berdintasun Plana jarraitzen ari da, eta, aurrerapen ugari egin diren arren, oraindik ere agerikoa da lehentasunezko ildo batzuetan lan egiteko beharra. Horietako bat da, zalantzarik gabe, emakumeek ibilbide akademikoan duten presentzia, maila goreneko lanpostuetara iritsiz. Bai 2023ko genero berdintasunaren diagnostikoa, bai EHUKo Berdintasunerako Zuzendaritzak zifratu argitaratutako urteko Berdintasun txostenak errealitate horren lekuko dira.

Egoera aldatzeko asmoz, EHUKo Berdintasunerako Zuzendaritzak honako ekintza hauek jasotzen ditu:

2.1.- AKADEME, EHUKo emakume akademikoen lidergoa bultzatzeko programa



EHUKo Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planeko V. ardatzak —Gobernantza eta baliabideak— 1.4 jardun lerroan jasotzen duen bezala: ***"Emakume akademikoen eta TEKAZEL emakumeen (Akademe eta A-Leader/Lemari) ahalduntzea eta lidergoa lortzen lagunduko duten***

prestakuntza programak sendotzea".

2025ean, Maru Sarasolak erretiroa hartu ondoren, programako hezitzaileen erreleboa egin zen. Izaskun Merodiok eta Maider Gorostidik hartu zuten lekukoa, eta bakoitzak programako talde bat hartu zuen bere gain. Aldaketa gorabehera, parte hartzaileen balorazioak ordura artekoak bezain onak izan ziren, eta, horrela, Akademe bezalako programa estrategiko baten jarraipena bermatu da.

2.2.- Micaela Portilla saria EHUKo tesi onenari, ikasketa feministei edo generokoei buruzkoari

Irakaskuntzan genero ikuspegia eta teoria eta praktika feminista txertatzea, EHUKo Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planeko 2.1 jardun lerroak jasotzen duen bezala: ***"Genero ikuspegia duten Gradu Amaierako Lanen, Master Amaierako Lanen eta Doktorego Tesien aitorpena finkatzea, Francisca de Aculodi, María Goyri eta Micaela Portilla sarien bidez***". Jarduera hori aurrera eramateko, EHUK Micaela Portilla Vitoria sariaren XI. edizioa deitu du, ikasketa feministei eta generokoei buruzko EHUKo tesi onenari ematen zaion saria.

M8ko ekitaldi instituzionalean (martxoaren 10ean) Micaela Portilla sariaren XII. edizioko saria banatu zen. Saria sortu zenetik 63 hautagaitza baino gehiago aurkeztu dira urte hauetan.

Micaela Portilla saria irabazi duten azken tesiak		
Edizioa	Tesia	Egilea
IX. edizioa (2020)	<i>Hilekoaren politika eta kultura alternatiboen etnografia bat: genero-konfigurazioak, gorputz-ahalduntzea eta ezagutza kolektiboak</i>	Miren Guillo Arakistain
X. edizioa (2021)	<i>Transfeminismotik ekarriak haur hezkuntzara: eskola identitateari buruzko kasu azterketak neoliberalismo garaian</i>	Irati Leon Hernandez
XI. edizioa (2022)	<i>Irun eta Hondarribiko Alardeak eta genero ordena. Ikuspegi historiko bat 1993-2008</i>	Ilargi Bengoetxea Gartzia
	<i>Accesita</i> <i>Comunidad, ruralidad y género. Una etnografía en el valle del Roncal</i>	Ainara Barron Iriarte
XII. edizioa (2023)	<i>Matematika, hezkuntza eta generoa gurutzatzen diren lekuak</i> <i>Ahots feministek lagundutako kartografia bat</i>	Uzuri Albizu Mallea
XIII. edizioa (2024)	<i>Emociones, represión y resistencias de género en el franquismo (País Vasco 1939-1968)</i>	Maialen Altuna Etxeberria
	<i>Accesita</i> <i>El tratamiento de la violencia (masculina) contra las mujeres en la literatura vasca y española (2003-2019)</i>	Itxaro Gonzalez Guridi

3. Unibertsitate bizitza

3.1.- Genero indarkerien aurkako UPV/EHUn protokoloa

2018ko ekainaz geroztik indarrean dago genero indarkerien aurkako UPV/EHUn protokoloa, eta 2018ko abenduan Genero Indarkeriaren Arretarako Batzordea eratu zen, zeina Berdintasunerako Zuzendaritzara iristen diren indarkeria kasuez arduratzen baita.

2025ean areagotu egin dira EHuko Berdintasunerako Zuzendaritzari jakinarazitako indarkeria kasuak. Taula honetan artatutako kasuak agertzen dira:

	Kasu kopurua	Eragindako pertsonak**		
		Ikasleak	TEKAZEL	IRI
Indarkeria fisiko-psikologikoa*	25	22	1	2
Sexuan oinarritutako jazarpena	3	1	2	0
Sexuan oinarritutako jazarpena (LGTBIQ+)	3	3	0	0
Indarkeria psikologikoa	1	1	0	0
GUZTIRA	32	27	3	2

(*) Datu horiei dagokienez, adierazi behar da zenbait kasutan indarkeria fisikoa zein psikologikoa kasu kolektiboak dagozkiela. Kasu horietako batzuetan, biktima bat edo batzuk indarkeria fisiko edo psikologikoen biktima izan dira, eta gainerako kasuetan ingurumen jazarpenaren biktimak izan dira.

(**) Zifra horiek ez dute guztizko biktima kopurua adierazten ingurumen jazarpeneko kasuetan.

Azken urteotan, indarkeria kasuak gora egin dute EHUn, bai kasuen kopuruari, bai eragindako pertsonen kopuruari dagokionez. EHUK urte askoren buruan genero indarkerien aurka egin duen lanaren adierazgarri da hori. Aurreko urtearekin alderatuta, ikusten da TEKAZEL (0tik 3ra) eta IRI (1etik 2ra) langileen kasuak gora egin dutela, eta horrek agerian uzten du protokoloa kolektibo horien artean zabaltzeak eragin positiboa izan duela.

- **INDARTU. EHUn genero indarkeriak prebenitzeko programa:**

EHUKo Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planeko IV. ardatzeko — Pertsonak— 1.7 jardun lerroa: *"Ikasleentzako genero indarkerien prebentzio programak indartzea (Indartu eta Eraldatu), eta zenbat kasutan aplikatu diren argitaratzea Zuzendaritzaren memorian".*



2025ean, **programaren VII. edizioa** egin zen online formatuan, eta 160 emakumek parte hartu zuten, 83 emakumek gaztelaniazko taldean eta 77k euskarazko taldean. Horietatik 69 emakumek oso balorazio positiboak egin zituzten programa amaitu zutenean. Ikusten denez, programa hori urteko ekintzetan finkatuta dago jada, eta ikasleek interesa dute gaiaren eta programaren inguruan.

- **ERALDATZEN. EHUⁿ genero indarkeriak prebenitzeko programa:**

Indartu programarekin batera, Eraldatzen programa ere jardun lerro garrantzitsua da EHUKo Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planean.

Hala ere, Indartu programan ez bezala, parte hartzea urria da; oraindik ere zaila da gizonak hurbiltzea genero indarkeriei buruz hausnartzera edo lan egitera. 2025eko V. edizioan 20 gizonak amaitu zuten programa, balorazio oso positiboekin. Ikusten denez parte hartzea ia bikoiztu egin da aurreko urtearekin alderatuta, baina oraindik ere oso txikia da, eta, beraz, 2026rako programa hori TEKAZEL eta IRI gizonetzkoen artean zabaltzen jarraitzea da asmoa.

3.2.- Protokoloa, pertsona transek eta ez-bitarrek UPV/EHUⁿ izena aldatzekoa:

Trans pertsonak eta ez-bitarrek UPV/EHUⁿ izena aldatzeko protokoloarekin, EHUK konpromisoa hartzen du unibertsitateko kideen genero identitateari lotutako beharrak asetzeko, eta genero identitatearen aldarrikapen eta adierazpen askea eta genero identitatean oinarritutako diskriminazio ororen desagertzea bermatzeko.

2025ean 12 lagunek eskatu diote Zuzendaritzari izena aldatzeko, protokolo hori aplikatuz. Joan den urtearekin alderatuta, jasotako eskaeren kopurua pixka bat jaitsi dela ikusten bada ere, hori horrela da gero eta aldaketa gehiago eskatu ahal izan direlako zuzenean ikastegietako idazkaritzetan, eta horrek agerian uzten du protokolo hori jada normaltasun osoz aplikatzen dela unibertsitatean.



3.3.- IngeniatuZ campusa

STEAM bokazio goiztiarrak garrantzi bereziko jardun lerroa dira EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzak garatutako jardueren artean. EHUko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planeko III. ardatzean —Gizartea eta kultura— jasotzen



INGENIATUZ
 Ezagutu, imajinatu eta esperimentatu
 Descubre, imagina y experimenta

IngeniatuZ, Ingeniaritza + Zientzia EHU!

EHUko Bilboko Ingeniaritza Eskolak, Zientzia eta Teknologia Fakultateak eta Berdintasunerako Zuzendaritzak udako campusa antolatu dute DBHko 3. eta 4. Mailako eta Batxilergoko 1. mailako ikasleek Ingeniaritzaren eta zientziaren ahalmen eraldatzailea ezagutu dezaten.

Campusa ekainaren 30etik uztailaren 4ra egingo da, 9:00etatik 14:00etara, eta bertan praktikak egingo dira elektronika, telekomunikazioak, 3D inprimaketa, biologia edo ekosistemen funtzionamendua bezalako diziplinak aztertzeko.

Lehenengo hiru egunetan, praktikak Bilboko Ingeniaritza Eskolan egingo dira. Azken bi egunetan, praktikak Leioako Campusean, Zientzia eta Teknologia Fakultatean.

Campusa euskaraz eta gaztelaniaz izango da.

Nork: 15-17 urteko gazteak
Noiz: ekainak 30 – uztailak 4
Izena emateko epea: ekainaren 5etik 15era
Dohainik

[Izen-ematea](#)



den moduan, EHUn lehentasunetako bat da zientziari eta teknologiari loturiko bokazio goiztiarrak bultzatzea, emakumeen artean eta STEAM arloetan bereziki. Horrela jasota dago hurrengo 3.2 jardun lerroan: STEAM metodologiei loturiko udako campusa sustatzea, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako neska ikasleentzat.

2025ean, jauzi kualitatibo bat egin zen ildo horretan, eta udako STEAM campusaren lehen edizio pilotua antolatu zen Bizkaiko Campusean. Lan horri ekiteko, deialdi bat egin zen, eta bi lantaldek parte hartu zuten: bata, Zientzia eta Teknologia Fakultetetik, eta, besteak, Bilboko Ingeniaritza Eskolatik. Azkenean, bi proiektuak uztartu ahal izan ziren, eta IngeniatuZ udako campus gisa garatu zen.

Ekainaren 30etik uztailaren 4ra bitartean egin zen lehen edizio pilotu horretan 23 ikaslek hartu zuten parte, eta horien balorazioak oso positiboak izan ziren, campusak jarraipena izan zezan agertu zuten interesa nabarmentzekoa izanik.

4. Unibertsitate hedakuntza

4.1.- Lana, familia eta bizitza pertsonala kontziliatzeko UPV/EHUko gida

Kontziliatzeko sortutako EHUKo gidak une hauetan dauden neurriak islatzen dituen arren, dokumentu bizia da, eta 2022an onartutako hainbat hobekuntza jasotzen ditu. EHUKo Sektore arteko Batzordean sortutako negoziazio prozesuaren ondorioz, unibertsitatean ordezkaritza duten sindikatuek beren ekarpenak egin ahal izan zituzten. Horren ondorioz, **EHUKo Berdintasunerako Sektore arteko Batzordearen Akordioa onartu eta sinatu zen 2022ko martxoaren 23an**, Kontziliatzeko Gidari buruzko hainbat hobekuntza onartu zituen. Horri buruzko informazio guztia eskuragarri dago EHUKo Berdintasunerako Zuzendaritzaren webgunean.



Bestalde, Berdintasunerako Zuzendaritzak sektore arteko mahaian jarraitu du 2025ean zehar, emakumeen eta gizonen arteko kontziliazio eta erantzukidetasun neurri berriak bultzatzeko eta 2025ean indarrean sartu diren arauak betearazteko behar diren argibideak hobeto emateko.

Horren harira, esan beharra dago Kontziliatzeko Gidari dagokionez, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planak proiektu berri bat jaso zuela gida horretan jasotako neurrien aplikazioan interpretazio arazoak sortzen direnerako. Hori horrela, 2025ean Planean aurreikusitako batzordea sortu da, Administrazioaren erabakien aurka kontziliazioaren arloan aurkeztu diren erreklamazioei buruz erabakitzeke.

4.2.- Berdintasunari lotutako EHUn irudi soziala

- **M8:** 2025eko martxoaren 10eko ekitaldi akademiko instituzionala, Arabako Campuseko Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskolan. Aurreko urteetan bezala, EHUKo Berdintasunerako Zuzendaritza arduratu zen antolatzeaz, eta ekitaldia zuzenean jarraitu zuten streaming bidez 110 pertsonak baino gehiagok.

2024ko edizioan bezala, eta aurreko edizioetan ez bezala, jakintza arlo bakoitzeko emakume bat omendu beharrean, omenaldi orokor bat egin zen. Hau da, jakintza arloa kontuan hartu gabe omendu ziren. Omenduak izateko emakumezkoen proposamenak, ikastegietako berdintasun batzordeetatik jaso ziren nagusiki, eta proposatutako guztiek ere ibilbide oparoa izan dute berdintasunaren eta/edo feminismoaren alde.

Ikastegia	Omendua
Zuzenbide Fakultatea	Elena Leñena Mendizabal
Zientzia eta Teknologia Fakultatea	Maria Jesus Irabien Guliás
Letren Fakultatea	Mari Jose Olaziregi Alustiza
Bilboko Hezkuntza Fakultatea Psikologia Fakultatea	Nahia Idoiaga Mondragón
TEKAZEL	Susana Andino García
Ekonomia eta Enpresa Fakultatea	Volanda Jubeto Ruiz



1. irudia: M8ko ekitaldi instituzionalera bertaratutakoak, Arabako Campuseko Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskolan.

Omenaldia egiteaz gain, Francisca de Aculodi, Maria Goyri eta Micaela Portilla sariak banatu ziren urtero bezala.

- **UniDibertsitate Eguna**

2025eko ekainaren 6an UniDibertsitate Egunaren V. edizioa egin zen Gipuzkoako Campuseko Zuzenbide Fakultatean. Ekitaldia streaming bidez

eman zen, eta, Empar Pineda saria eta UniDibertsitatea film laburren lehiaketako sariak emateaz gain, film labur irabazleak proiektatu ziren eta Ed Rojasen gutuna irakurri zuen Aniztasunaren aldeko Unibertsitate Sareko EHUKo ordezkari Julen Zabala Alonsok.



2. irudia: UniDibertsitatea ekitaldi instituzionalera bertaratutakoak, Gipuzkoako Campuseko Zuzenbide Fakultatean

- Emakumeen Aurkako Indarkeria Ezabatzeko Eguna EHUn (2025eko azaroaren 25a)

2025ean kontzentrazioak egin ziren hiru campusetan azaroaren 25ean, eta manifestuak irakurri ziren, lelo honekin: Bizirik! Ondoren, minutu bateko isilunea egin zen indarkeria matxisten biktimen alde. Horrez gain, azaroaren 25a zela eta, Berdintasunerako Zuzendaritzak autodefentsa tailerra antolatu zuen emakumezko ikasleentzat, Arabako Campuseko Hezkuntza eta Kirol Fakultateko Kirol Atalean.

4.3.- EHUKo Berdintasunerako Zuzendaritzaren presentzia unibertsitatearen ekitaldi eta jardueretan

EHUKo Berdintasunerako Zuzendaritzak EHUKo hainbat ikastegitan egindako ekitaldi instituzional hauetan parte hartu zuen:

- Inaugurazioa Sarrikon: Ekonomia, enpresa eta generoari buruzko IX. jardunaldiak: «Ekonomia birpentsatzen: zaintzak ardatz». 2025eko martxoaren 17an, 11:20an, Ekonomia eta Enpresa Fakultatean (Sarriko).
- Gladys Sariaren IV. edizioko sari banaketa: 2025eko irailaren 26an Donostian egindako ekitaldian Usue Mori Carrascal (Donostia, 1987) eman zitzaion saria,

PUNTUEUSen eta Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Informatika Fakultatearen eskutik. Berdintasunerako Zuzendaritzak Informatika Fakultatean egindako ekitaldia babestu zuen eta bertan izan zen.



3. irudia: "Gladys saria" emateko ekitaldira bertaratutakoak, Gipuzkoako Campuseko Informatika Fakultatean

- "Etxeko eta zaintzako enpleguan duintasunerako unibertsitatea-gizartea aliantzak eraikiz" jardunaldiaren hasiera, Psikologia Fakultatean, 2025eko abenduaren 2an.

4.4.- EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzaren presentzia beste unibertsitate eta erakunde batzuen ekitaldi eta jardueretan

2025eko ikasturtean, zuzendariak "Políticas de Igualdad de Género en las Universidades Iberoamericanas" nazioarteko sinposioan parte hartu zuen, Mexikoko Unibertsitate Nazional Autonomoan, UNAMeko Genero Berdintasunerako Koordinazioaren eta Consejo Latinoamericano de Ciencias Sociales erakundearen babespean, 2025eko urriaren 27tik 29ra bitartean. Hain zuzen ere, unibertsitateetan genero arrazoiengatiko indarkeriaren arretari buruzko urriaren 28ko mahai inguruan parte hartu zuen, honako esku hartze honekin: "Del protocolo a la prevención: trabajando para la erradicación de la violencia de género en Euskal Herriko Unibertsitatea/Universidad del País Vasco (UPV/EHU)."

Abenduan, Burgosko Unibertsitateko Berdintasun Unitateak hitzaldi bat ematera gonbidatu zuen. "Avances y desafíos en docencia e investigación desde la perspectiva de género" izenburupean eman zuen hitzaldia, Berdintasunerako eta Generoaren prebentziorako Genero Ikuspegiko Irakaskuntzako eta Ikerketako Berrikuntzari buruzko jardunaldietan, 2025eko abenduaren 4an eta 5ean.

Era berean, EHUKo Berdintasunerako Zuzendaritzak Beldur Barik lehiaketako (Emakunde, 2025) eta G9 sarietako epaimahaietan parte hartu du.

4.5.- EHUKo Berdintasunerako Zuzendaritzaren presentzia komunikabideetan

2025ean, EHUKo Berdintasunerako Zuzendaritzak eta EHUn egindako berdintasun ekintza eta politikek hainbat agerraldi izan dituzte Espainiako eta atzerriko komunikabideetan (Berria, SER, EHUKo Irrati Maratoia, UNAMeko Radio Violeta, Mexiko).

Horrez gain, Berdintasunerako Zuzendaritzak data seinalatuetan unibertsitate barneko komunikabideetan artikulak, adierazpenak eta aldarrikapenak egiten parte hartu du, unibertsitateko kolektibo guztiak sentsibilizatzeko xedearekin.